

KOSTUEN EGITURA

Gure negozio-ereduak ez du funtzionatzen prezio-baxuak dituelako, baizik eta kalitate-maila handiagatik, gainera, gure enpresaren interes handiena ez da kostuak minimizatzea, baizik eta bezeroari eskaintzeko balioa sortzea “OLUSS” ospeagatik iritsi nahi baitu bezeroarengana, beraz, esan dezakegu gure negozio-eredua balioan oinarritutakoa dela. Horren ondorioz, hainbat kostu ditugu, finkoak naiz aldakorrak.

- **KOSTU FINKOAK:** Langileen soldatak, publizitatea lortzeko kuotak, beste denda batzuetan gure produktuak saldu ahal izateko alokairua, gure produktua ekoizteko fabrikaren alokairua...
- **KOSTU ALDAKORRAK:** Gure produktua ekoizteko behar ditugun lehengaiak (piezak, mikrotxipak...), energia, makinak...

Beste alde batetik, eskala-ekonomia ere lortzeko gai izango gara, izan ere, zenbat eta gehiago hasi gure produktuaren eskaria publizitateari, beste enpresa batzuei, eta irabazten joango garen arrakastari esker, gero eta kantitate gehiago ekoitzi beharko dugu, eta ondorioz, merkeago aterako zaigu ekoizpena. Izan ere, piezak egiten dituzten enpresei zenbat eta kopuru handiagoa erosi, orduan eta merkeago aterako zaigu ekoizpena, beherapenak egingo dizkigutelako, eta ondorioz, eskala-ekonomia lortuko dugu.